

NORANTZA

NAROA GOROSTIAGA

Iparraldeko hiru euskal irratien koordinatzailea

«Gure irratien eragina euskararen egoerari lotua zaio»

Ipar Euskal Herriko hiru irratia duela 20 urte sortu ziren. 1997an euren arteko koordinazioa ofizializatu zenetik hona izandako gora beherak azaltzen ditu solasaldihonetan egitasmoaren koordinatzaileak.

HARRI LUJANBIO

Naróa Gorostiagak Baionako Gure Irratian egin zituen bere lehenengo pausok irratigintzan. Kazetari gazte honek dioenez, «Ipar Euskal Herrian ez da euskarazko formakuntza ofizialik existitzen, beraz, euskal kazetariok gure kabuz ikasi behar ditugu teknikak».

Nola etorri zen Gure Irratia, Irulegiko Irratia eta Xiberoko Botzaren arteko lana?

Hiru irratia duela hogei urte sortu ziren eta bakoitzak esperientzia luzea garatu du. Betidanik elkarrekin lanean ari izan dira, eta 1997an ofizializatu zen koordinazioa. Euskal Irratiak izeneko egitura sortu zen, zenbait helbururekin: bakoitzak bere probintzian egiten dituen emankizuneez gain, elkarrekin egunean lau orduz antzea, berr sailak, hitzordu garrantzitsuen kronika eta igandeko programak batera emiltzeko. Egitura horretan lanpostu baten beharra ikusi zen, eta neuk hartu nuen duela urte eta erdi.

Zen da zure eginkizuna?

Sail komunak hobetzeko, haunbat alderditan ibiltzen naiz: txandak antolatu, berr sailak koordinatu, informazioaren segimendua talde bakar baten inguruan an-

tolatu. Efikazia handitzea eta programak hobetzea xede, lan egiteko moduak aldatuz joan gara. Gure kazetarietarako prestakuntzak abiarazten ditugu. Ikastaldiak haunbat sailletakoak izaten dira: teknika, animazioa, erreportajeak eta berrikuntza informatika. Beste hedabideetatik etortzen dira formaziozkoak, eta

gure beharrei erantzuten dieten ikastaroak ematen dizkigute, berriz euskaraz. Barne egituraketaz gain, kanpo harremanez ere arduratzen naiz. Instituzio, elkarte eta jendeekiko harremanak kudeatzen ditut hiru irratien izenean. Bozemaile gisa, ahots bakar baten izenean mintzatzea ezinbestekoa da kanpoari begira.

Nolako harremanak dituzue instituzioekin?

Gaur egun, hiru irratiek 25 langile eta 200 langunzaile inguru ditugu. Soldatak segurtatu behar dira, eta proiektuak sendotu. Horarako languntza minimoak behar ditugu, eta zentzu horretan, hiru irratien

izenean lanpostua sortzeko beharra. Gure kontratuaren parte bate dugu, eta trukez diru publikoa ematera engaiatu ziren. Lau urte daramagu ahal bezala ibiltzen, eta beti zain egoten gara, ea egun batez egiazko euskarazko zerbituztat hartzen gaituzten.

Hego Euskal Herriko irratiekin ere lan egiten duzue.

Kronika trukaketak ditugu Euskadi Irratiarekin, partaidetza moduan, hala nola emankizun batzuei dagokienez. Gero, irriti bakoitzak bere harreman propioak ditu, Irulegiko Irratiak, adibidez, Baztango Xorroxin eta Iruñeko Euskal Herria irratiarekin erregularki egiten du lan.

Zer iritzi duzu euskal irratiek jendartean duten eraginaz?

Probintzia bakoitzak berezitasunak ditu eta bere kabuz eramanen ditu programazio eta kampaniak. Xiberuan lokal berrit bat erostekotan dira, Irulegik urtero Arrosa jaialdian parte hartzen du. Gure Irratian gure sareak daukagu. Elkartasunaren jorrazteak irratietan kalitate handiagoa ekarri die, jendea benetako zerbitzua ekartzeko asmoz. Orokorrean, irratien eragina euskararen egoerari lotua zaio. 20 urte, irratiek beren harria ekarri diote hizkuntzari, erran daitezke Lapurdin, irratiri esker, herrietan euskara lagundu dugula, hala nola elkarte eta besta komunitetan. Beti izan gara iniziatiba lokalei gure uhinak irekitzen. Arazoa da Iparraldean euskara pixkanaka galten ari dela, eta guk, gure aldetik, euskaraz edozein gai profesionalki tratatu daitezkeela erakutsi nahi dugu.



Jon Elorza



ZIRTOKA

Txillardegi

Zaramaga

Joan den uztaillean (orain dela 3 hilabete, beraz), handia zen abertzaleen artean zabalduko kezka. Bazetorren Lizarra-Garaziren II. urtemuga; eta piztutako poza eta esperantza gaitzak agorturik bide zuden. Eta sortutako instituzioak (U-Jalbiltza barne) erreaktatzeko abian. Eta irailera arte isilik egotea ezinezko iruditzen zitzaigun, alderdi politikoekin at, baina sindikalista aberdinetan begiegan, kolore desberdinetako pertsona batzu elkartzea egoki izan zitekeela iruditu zitzaigun.

«Herria 2000»ren inguruko jendeak Agin-zirriborro bat presatu zuen; eta uztailean 27an Gasteizko Zaramaga agorri amaitu biltzen hasi ginen. Parte hartzaileak oro jator mintzatu ziren. «Lizarra estia en coma» bola zuen batek. Eta abuztuan barrena gogor lan egitea erabaki zen; eta II. urtemuga egunerako «zerbitu» prestatzea. Helburua: Lizarra-Garazi berrindartzea. Handik egin batzutura, ETA-ren azkeneko oldardaldia hasi zen; eta egoera politikoak, eta gira bera, errotik aldatu ziren.

Agirien eta kontra-agirien ilara zabaldu zen. Eta, denon kororatzat, «Basta ya!»-koen manifestazio jendetsu eta lotsagarria burutu zen Donostian. Ibarretxe bera nora jo ez zekiela somatu genuen gehienok. Eta zanpaketa franko-espafiola, tinko.

Ene uste apalaz, errotik aldatu da egoera. Eta uztailean kontuz, tentuz, eta abertzaleek ez diren batzuk ere ez uxatuzkotan prestatutako izkribu epelak (Auto-Determinazio hitza bera ez da agertzen!) ez zuen jadanik balio. Espainiarkeria harrotuari aurre egiteko besterik behar zer, eta besterik behar da. Mario Zubiaga lumakideak mautsi-ki azaldu dituen arrazoinengatik.

Eta, barrena urratirik, neure izena Zaramagako Agiritik kentzea erabaki nuen.

Ez zait erraza izan. Zinez.

AITZINDARIAK

MANUEL AZNAR
1 8 9 4 1 9 7 5



M. AZNARREK DUGA EUSKADIAN • NAFARREARRA • 1912
**Urtzi Javna'k Euzkadi'n
 gu Yarr'i gindven;
 baño suge arrotzek
 usmatu ondoren ...**
 ETXAKARTAR HUNEK Bilboko Euzkadi egunkari jeltzaleen
 izkiriartzen dieu, bai eta Gerla Mendoren kronikak
 igorri ere FRANTZIA • BELGIKAKO BORTATIK GUDALGAI UENB

... emengo zori ona,
 etorri ziraden;
 ta lepoa estuka
 ito nai ginduten ...
 EUSKO ABERTZALE HAU ESPAINIARISTA EGIN DA GERO; ERREP
 BLIKAZALE ERREPUBLIKAN ETA FRANKOREN FRANTZAZALE ...
 ESPAINIAR, BIO

**Bat, .. bi ; gero amerik
 iretsi zituzten ...
 Oraindikon bai - dire
 daudenak il-urten ...**
 DIKTADURA FASISTAREN PROMOTIO • LANETAN • IBILI DUZU GERO
 WASHINGTONEN ETA LATINOAMERIKETAN GRINDI ENBAXADORE

**Euzkotarrak, idarroyo!
 ernaitu gaitezen,
 ta sugarragsta ori
 i il...lertu lenbaillen !**
 FRANKOK EFE PRENTSA • AGENTZIA EMAN DIO SORU 1958an eta
 1968an, eta bere bihurtu ofizial gisa izendatu.
 ORAINKO ESPAINIAR PRESIDENTAREN ANTATXI DUZU EGO
 AITZINA
 BIZTUTA
 AITZINA
 AITZINA

AIZINA + THEMIDOR